

Urteko 11. Igandea (A)

LEHENENGO IRAKURGAIA

Apaiz-erreinu izango zaituztet, niri sagaraturiko herri.

Irteera liburutik 19,2-6a

Egun haietan, Sinai basamortura heldu ziren, eta han ezarri zuten kanpalekua, mendiaren aurrez aurre.

Moises mendira igo zen Jainkoarengana.

Jaunak menditik dei egin eta esan zion: «Mintza zakizkie Jakobena ondorengoei, israeldarrei, eta adierazi hau: Ikusi duzue zer egin diedan egiptoarrei, eta nola, arranoak bere kumeak hegaletan bezala hartuz, niregana ekarri zaituztedan. Beraz, nire esana betetzen baduzue eta nire ituna gordetzen, zuek izango zaituztet herri guztien artean neure jabego berezia, nirea baita lur osoa; apaiz-erreinu izango zaituztet, niri sagaraturiko herri.

Jaunak esana

SALMOA

Salmoa 99, 2. 3. 5 (R 3c)

R.

Gu gara bere herri eta berak larraturiko artalde

Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari!

Zerbitza ezazue pozik Jauna,

joan oihi alaiz haren aurrera. **R.**

Aitortu Jauna Jainko dela.

Berak eginak eta bereak gaitu,

bere herri eta berak larraturiko artalde. **R.**

Bai, ona da Jauna,

haren maitasuna betikoa,

haren leialtasuna mendez mendekoa. **R.**

BIGARREN IRAKURGAIA

Zeren eta, Jainkoak bere Semearen heriotzari esker berekin baketu bagintuen, behin baketuz gero, zenbatez gehiago ez ote gaitu salbatuko beraren biziaz!

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik 5, 6-11

Izan ere, oraindik bekatupean indargabe ginela, Jainkoak erabakitako garaian, gaiztoen alde hil zen Kristo. Nekez hilko litzateke norbait pertsona zuzen baten alde; agian bai, badaiteke norbait pertsona on baten alde hiltzeko prest egotea. Baina Kristo, gu oraindik bekatari ginela hil zen gure alde: honela erakusten du Jainkoak guri digun maitasuna.

Orain, Jainkoak Kristoren odolaz onartu gaituelarik, zenbatez gehiago ez ote gaitu salbatuko zigorretik beraren bitartez! Zeren eta, etsai ginelarik, Jainkoak bere Semearen heriotzari esker berekin baketu bagintuen, behin baketuz gero, zenbatez gehiago ez ote gaitu salbatuko beraren biziaz! Are gehiago, Jainkoaz harro gaude Jesu Kristo gure Jaunari esker, beronen bitartez Jainkoarekin baketzea iritsi baitugu dagoeneko.

Jaunak esana

Aleluya Mk 1,15

Aleluya. Aleluya.

Gaingan duzue Jainkoaren erregetza.

Bihozberri zaitezte eta sinetsi berri ona. Aleluya.

EBANJELIOA

Bere hamabi ikasleei dei eginik, bidali zituen.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa Mateo liburutik 9, 36-10,8

Dembora haietan, jendetza ikustean, errukitu egin zitzairen Jesus, nekatuak eta lur jota baitzeuden, artzain gabeko ardiak bezala. Orduan, bere ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara».

Jesusek, bere hamabi ikasleei dei eginik, ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko.

Hona hemen hamabi apostoluen izenak: lehenbizi Simon -Pedro deritzana- eta haren anaia Andres; Santiago Zebedeorena eta haren anaia Joan; Felipe eta Bartolome; Tomas eta Mateo, zergalaria; Santiago Alfeorena eta Tadeo; Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena.

Hamabiok bidali zituen Jesusek, oharpen hauek eginez: «Ez joan jentilen lurraldeetara, ez sartu Samaria herrialdean ere, baizik eta joan Israel herriko ardi galduengana. Bidez zoaztela, hots egin Jainkoaren erregetza gainean dela. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legendunak, bota deabruak. Doan hartu duzue, eman doan.

Jaunak esana

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>